

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezero berriak erakartzeko, helburu argiak izan behar ditugu eta bezeroen beharretara egokitutako eskaintzak eskaini. Interneteko tresnak, hala nola sare sozialak, webgunea eta iragarkiak, oso baliagarriak dira. Gainera, elkarlanak eta lehen esperientzia on bat eskaintzeak lagunduko du bezeroak erakartzen.

Behin bezeroak lortuta, hau da, lehen aldiz erosi eta gero, haiek mantentzeko, zerbitzu ona eman behar dugu, arazoei, hala nola, bidalketarekin edo produktuaren egoerarekin zerikusia dutenei, azkar erantzunez eta bezero bakoitza berezi sentiaraziz, arazo . Leialtasun programak, deskontuak eta bezeroen iritzia jasotzea ere garrantzitsuak dira. Azkenik, komunikazioa aktibo mantenduko genuke, berriak eta eskaintzak partekatuz bezeroei beraiekin dugun lotura indartzeko.

